

Primaderako liliak



NORA SALBOTX ALEGRIA
MAISTRA

“Urte berri-berri, zer dakarrazu berri?” oihukatzen genien, urteko lehen eguneko gaupasatik bueltan, bidean gurutzatzen genituen goiztiarrei. Eske puxken esperantzangu, mozkor panparrotuok. Eta artean ez baitzen ez *runner*-ik ez eta *selfie*-rik ere, gehien-gehienara topatuko genuen bart arratseko gehiegizko afaria porrotkatzera ateratako lasterkari eroxkaren bat, Urteberriko mendi bueltaz betiereko itzuleraren erritua berritzeko prest-presta kuadrilla koloretsua, edo periodiko-ogietarako eguneroko errutinan laketuta, denda itxirako joan-etorrian, jubilatatu despistatu bakan batzuk.

Garai hartan, *Primula vulgarisak* (sanjose edo udaberri loreak) primaderaren iragarle ziren. Martxo erditsuan bide bazterrak estalita ikusten genituen eta Garbiñe Larreak *Sendabelarrek dakitena* liburu eder horretan dioen gisan, “negu ilunean bazterrak apaintzen eta alaitzen” zizkiguten.

Urteak eta adina kurri, apaintze eta alaitze horien peskizan akaso, *runner* baino, aukeran, gauza ñimiñoiei patxadaz begiratzen dien mendizaletasuna hautatu duen honi, lore hori ttipiak bortzegien parean suertatu orduko hasten zaio besta. Lehena ikusterako halako poz batek hartzen dizkit barrenak eta egun seinalatu bilakatzen dut zorioneko data. Eguna apuntatzen dut, argazkia egiten, klik, inguruko guztiei sanjose lorea ikusi dudala iragartzen, sareetara jotzen, post. Inaute sasoiako Orakunde



MAIDER LETURIAGA

eskean ere, udaberri loreak ikusiz gero, “halako eta holako baserrirako bidean ikusi ditugu eta hasi dira sortzen eta zer lastima han ez zinela eta begira: bat ekarri dizut”, etorriko zait alaba segituan. Garai batekoek halakoetan aitaren egin eta lore ale bat jaten omen zuten urtarro berriaren bizi-endarra bereganatu nahiez edo, Larreak kontatzen du.

Aitortuko dizuet ere *lore sortzeka* berdintzen ohi dudala urtea; orain, sanjoseak, gero, bata bertzearen segidan, lilipak, kuku-prakak, maraguriak, orki-deak, azafraiak eta, akabera alde horretan, inarra loretan. Eta urteari jirabiran, berriz sanjoseak, berriz lilipak, berriz...

Naturaren sasoiaren borobiltasun horri, alta, ertzak zorroztu dizkiogu kutsatzearen kutsatzeaz eta xurgatzearen xurgatzeaz. Duela bi urte, Urteberri egunerako ikusi genituen lehenak eta “ño, hau bai Urtats arraroa” pentsatu nuen, kezkatuta. Iaz prima behar zukeena hondarra ernatu da eta Domu Santutarako sortu dira gure bazterretan, larrazken betean. Hartan, holako gauza polit ttipi batek nola derrepentean apokaliptasia iragarri dezakeen ohartuta, izuak harrapatu nau. Are udaberri lore garaiz kanpokoan iratzartzea Valentziako ur uher eta kanaberen, plastiko poto, erre-gai orbain eta gorpu lohizatuen egun bertsuetan izan delarik.

Honetan ere apuntatu dut eguna, argazkia egin, klik, inguruetan iragarri, sareetara igo, post, kezka baina; zer azalduko ote diegu orain gure haurrei? Izan zela lore bat udaberri izenekoak? Akaso. Izan zela udaberri izeneko urte sasoi bat? Kasu!

Akordatzen zer ikasi genuen izenen iragankortasunaz XX. mende akabera hartan? Nola etxeko Atlas lerden hura irringarri bilakatu zen ohartu orduko? Ba irakats dezagun, eskola liburu eta ipuin oro iraungi aitzinean, badela zaintza bat, baita naturan ere. Ingurumena eskubideetan eta justizian eta ukigarriak diren gauzetan ere badagoela. Lurraren izerdia daramala jaten dugun orok. Azaldu ekotopiak egingarri direla eta zuhaitz eta lore denek bere izena badutela. Neguaren ondorenean izan daitezen primaderan liliak; primadera eta liliak. ●